

I. ERANSKINA

IKASTURTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA:	ABADIÑO BHI	KODEA:	
ETAPA:	DBH	MAILA:	2. Maila
IRAKASGAIA:	GORPUTZ HEZKUNTZA		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA	Konpetentzia motorra		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUA	Konpetentzia motorra		
IRAKASLEAK:	Iratxe Aristegi Aragon	IKASTURTEA:	22-23

Zeharkako konpetentziak:

1. Elkarbizitzarako konpetentzia.
2. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
3. Izaten ikasteko konpetentzia.
4. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
5. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>1. Beroketa orokorra ezagutu eta beronen faseak ondo bereiztea.</p> <p>2. Gorputz posizio egokien ariketak finkatzea.</p> <p>3. Jarduera eta ekintzen aurrean autoexijentzia jarrera hartzea, oinarrizko jarrera gisa esperimendatzeko.</p> <p>4. Talde maila anitzak onartu eta kide ezberdinekin lan egiteko gai izatea.</p> <p>5. Talde kiroletan taktikatik teknikara prozesua egitea.</p> <p>6. Jolas eta kirol araudia errespetatzea.</p> <p>7. Euskal kulturaren ondare diren kirol eta dantzak baloratu eta praktikatzeko.</p> <p>8. Higiene jarrera egokiak garatu eta materialaren erabilera egokia izatea.</p> <p>5.2. Erasoan eta defentsan kokatzeko gai diren. neskak espazioak okupatzen dituzten</p> <p>5.3. Oinarrizko teknikaren jabe diren eta berau lortzeko lan autonomoa egiteko gai diren.</p> <p>6.1. Ea kirol eta jolasetako oinarrizko arauak ezagutzen dituzten.</p> <p>6.2. Ea berauek errespetatzen dituzten eta irteeretan ingurua gargi uzten duten.</p> <p>7. Ea .gureak diren ohiko jarduerak bezala onartzen Ditutzen eta euskaraz jolasteko ahalegina egiten duten.</p> <p>8.1. Ea kirol janzkera egokia dakarten.</p> <p>82. Erlaxazio fasearen zati bezala ulertzen duten dutxa, eta ezberdina ere, taldekide gisa onartzen</p>	<p>1.1. Lan taldean beroketabat aurkezteko gai diren.</p> <p>1.2. Beroketaren atalak ondo desberdintzeko gai diren.</p> <p>2. Beroketaren 2. atalean, gihar luzaketak behar bezala egiten dituzten.</p> <p>3. Ea ahalegintzen diren aipaturako gutxienezko helburuetara heltzen.</p> <p>4.1. Norbere maila ezagutzeko hasierako test eta ariketak egin. Norbere abiapuntua onartu, baita kideena ere.</p> <p>4.2. Ea taldekide guztiekin lan egiteko gai diren.</p> <p>4.3. Gela bereko maila anitzeko pertsonekin lan egiteko gai diren.</p> <p>5.1. Talde kiroletan espazioa nola erabiltzen duten..</p>

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

Ebaluazio bakoitzak bere blokeak ditu. Blokeetan unitate didaktikoak eta beraien saio kopurua zehaztuko da.

1. EBALUAZIOA

Gorputz egoera eta osasuna

- beroketa orokorra(2),
- gorputz gaitasunak(3),

Mugimen-kultura

- talde kirola: futbola (2).

kirol alternatiboa: Colpbal eta ultimate.(3).

Gorputz adierazpena

- errepresentazioa eta antzezlanak (1).

2 EBALUAZIOA

Mugimen- kultura

herri-kirolak(1)

- talde kirola:burruka eta parkorra.(4)

- errugbia(3)

Gorputz adierazpena

- deshinibizioa eta erritmoa.Euskal dantzak.(2)

3. EBALUAZIOA

Mugimen kultura

- talde kirola: bolei (2).

- banakako kirola: atletismoa(2),patinaia (2),

- euskal kirola: pilota eta pala(3),

natur inguruneak:

- orientaziol asterketak (1)eta arrauna(1).

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

EDUKIEN AUKERAKETA

- Unitatearen hasieran ikasleen maila baloratu eta behar diren moldaketak egingo dira.
- Blokeen arteko loturak identifikatuko dira. talde kiroletan batez ere.

JARDUERA MOTAK

- Unitatearen hasieran jarduren aurkezpena egingo da.
- Ondorio zuzenetara heltzeko, hausnarketa prozesuak egingo dira egikaritzan zehar.
- Ikasleen aniztasunari erantzuteko banakako zein taldeko jarduera zehatzak proposatuko zaie eta era autonomoan egingo dute batzutan..

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

- Irakasleak azalpenetan eta gmailez bidalitako apunteak.
- Bilaketa prozesuak interneten.

IKASLEEN TALDEKATZEA

- Normalean talde lanean aritzen gara. Beharrizanen arabera kopurua gutxitu ala gehitu egiten dugu. Konfidantza eremuak sortu neskak espazioak okupatzeko

ESPAZIOA ETA DENBORAREN ANTOLAKETA

- Ikastetxearenak diren espazioak erabiltzen ditugu: polikiroldegia, frontoia eta patioak.
- Unitate batzuk ikastetxetik kanpo egiten dira: atletismoa Durangon eta arrauna Lekeition.

IKASLEEN ETA IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- Irakasleak behar teknikoak zuzendu, eta martxan jartzeko aginte zuzena erabiliko du. Beste jardueretan, aurkikuntza gidatua eta zereginen esleipena.
- Hartu-emonak hobetzeko rol aldaketak ere egingo dira.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa].</p>
<p>-Eguneroko lana: behaketa eskalakin bertan, arreta, parte hartzea, talde lana eta higiene ohiturak ebaluatzeko.</p> <p>-Helburu minimoen lorpena: elkar-behaketa eskalakin.</p> <p>-Unitate batzuetan: autoebaluazio txantiloia, gorputz adierazpenean esate baterako.</p>	<p>-Eguneroko behaketa %50</p> <ul style="list-style-type: none"> -Lanaren kantitatea eta kalitatea (%20) -Jarrera :errespetua, materialaren zainketa, atentzioa (%20) -Arropa egokia, dutxa eta higiene pertsonala %10 <p>-Lanak %50</p> <p>Bakarka edo taldekako lan teoriko praktikoak.</p> <p>* Atal hau ez bada egiten, bere balioa (%20) jarrerara pasatuko da berari %40 izanez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Korrikaldi jarraia %10 - Froga praktikoa %20 - Talde lana/ froga teorikoa %20 <p>* <u>Gaixorik edo ezin dutenak saio praktikoa egin,</u> lantzen ari garen gaiari buruzko azterketa eta lan teoriko praktiko bat burutu beharko dute</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	

Gelara egunero etorri eta normaltasunea parte hartzen duenak ez du inolako zailtasunik asignatura gainditzeko. Hala ere, minimoak argitzi zeintzuk diren eta hauek lortzeko lan egin beharko dute. Indartze neurriak bestelako arazoak dituzten ikasleekin hartuko dira: jarrera arazoak, klasera ez datozenekin eta abar.

Osasun arazoak dituzten ikasleekin akordioetara heltzen gara asignatura gainditzeko. Normalean, lan teorikoak edo gutxiengo helburu baxuagoak jartzen zaizkie.

OHARRAK

Bake hezkuntza: ikastetxe mailan **Elkarbizitza** proiektuan sartuta gaude eta gure arloan ematen diren gatazka espezifikoak (ukitze fisikoak, irabazi, ...) aurrean proiektuan zehaztutako protokoloak erabiltzeko aukera.

Ingurugiroa: Agenda 21 barruan sartuta gaude. Aurtengo erronka nagusia, elikadura zirkularraren gainekoa da. Gure arloan, elikadura osasungarria tratatuz landuko dugu.

Irakurketa bultzatuko dugu gure arloko gaiak jorratuz.

Hezkidetzak: neska erreferentetzat hartuko ditugu ariketa batzuek egiteko. Talde mistoak lehenetsiko da. Hizkera egokia erabiliko dugu: neska-mutilak eta abar.

ARAZO EGOERA

Izenburua: Talde kirolak**Arloa / Materia:** Gorputz Hezkuntza**Maila:** 2. DBH**Testuingurua**

Aski ezagunak dira gaur egun talde kirol ezberdinak. Hala ere, talde kirol ezagunenak baloia objektu gisa erabiltzen dutenak dira, futbola, errugbia, eskubaloia, saskibaloia,...

Problema

Nolakoa da talde kirol nagusiek daukaten joko egitura? Zenbat taldek osatzen dute? Zenbat taldekidez osatuak daude taldeak? Zenbat helmuga, ate edo saski daude? Zein erlazio du jokalaria kopuruak eta erabilitako eremuaren tamainak? Nolakoa da erabiltzen den objektua?

Xedea

Talde desberdinak ezagutzea eta hauek landuz, beste balore eta printzipioak barneratzea.

Helburuak

- Talde kirolen jatorria, egitura eta praktika ezagutzea.
- Talde kirolen egitura beretsua duten jolasak sortu eta praktikan jartzea.
- Material ezberdinekin lan egitea (baloi mota ezberdinak).
- Taldekidetasuna eta ekitatea lantzea.
- Arauen ulermena eta hauen errespetua lantzea.
- Interneten dauden erabilerak ezagutzea.

Ataza

Talde kirolen egitura ezagututa, ikasleek beraien sortutako talde kirol bat sortu beharko dute eta praktikan jarri. Praktikan jarri ostean, egin denaren balorazioa eta hausnarketa egingo da.

Jarraibideak

- Talde kirol ezberdinena zerrenda egingo da eta bakoitzak dituen ezaugarriak honako oinarri hauen arabera sailkatuko dira:

ESPAZIOA

DENBORA

OBJEKTU MOTA

TALDE ETA TALDEKIDE KOPURUA

JOKATZEKO ERABILTZEN DIREN GORPUTZ ATALAK

- Talde kirol nagusiak landuko dira kurtsoan zehar.
- Talde kirol bakoitzak dituen keinu tekniko nagusiak landuko dira, banaka, binaka eta noski taldeka.
- Espazio eremu txikiak erabiliko dira hasieran eta jarraian espazio errealagoetara joko da.
- Taldeak beti ezberdinak izango dira noski.
- Egindako talde kirolen sailkapena egin eta hauek praktikatu ostean, ikasleek talde kirol bat diseinatu beharko dute, aurrez aipaturiko 5 oinarriak kontuan izanik.
- Talde kirola aurkeztu eta praktikatu egingo da.
- Egindako praktikaren balorazioa eta hausnarketa burutuko da eta azkenik ebaluatu. Ebaluaketa batetik irakasleak burutuko du eta bestetik ikasle taldeak.